

# Higiezinaren fikzioa: Hirirako eskubidea zinean, higiezinaren fikziozko filmen bitartez

## Left Hand Rotation kolektiboaren trilogia

### Laburpena

Hiria eta hiritarrek protagonista dituen fikzio-collage honetan garai konkretu bateko eredu sozioekonomikoarekin lotutako hiri-gatazken erregistroa ezkututzen da.

Gako-hitzak: *gentrifikazioa, zinea, higiezinaren espekulazioa*

### Abstract

In this collage of fictions in which the city and its inhabitants are the protagonists, there is a record of the urban conflicts associated with the socioeconomic model of an era.

Keywords: *gentrification, cinema, real estate speculation*



### Left Hand Rotation

Kolektibo artistikoa. 2005etik interbentzioa, jabetzea, erregistroa eta bideo esku-hartzea barne hartzen dituzten proiektuak garatzen ditu.

Bidaltze data: 2018-09-09

Onartze data: 2018-09-29

2013an «Higiezinaren fikzioa» deritzon proiektua hasi genuen. «*Gentrificación no es un nombre de señora*» deituriko workshop-etan izandako esperientzien harira (15 hiritan eta 9 herrialdetan garatu duguna), fikzio-pelikulek osatutako materiala biltzen hasi ginen. Pelikula horietan etxebizitzarekin, hirirako eskubidearekin eta gentrifikazio-prozesuekin loturiko problematikak trama nagusian ageri edo harekin gurutzatzen dira. Deboraren poderioz, proiektua dokumental laburren trilogia bilakatu eta film-collage forma hartu zuen, zeren 2015ean bigarren atal bat gehitu baitzitzaion eta 2016an hirugarren bat, publikoarekin egindako eztabaida-saioez eta proiektioez gain. Guztira zinearen historiako 100 pelikula eta serie baino gehiagorekin egin genuen lan (20ko hamarkadatik gaur egunerakoak eta nazionalitate askotakoak, Ipar Ameriketatik Koreara, Txiletik Burkina Fasora, Belgika edo Txinatik igaroz).

### Fikzioa erregistrotzat (higiezinaren Found Footage-a)

Fikzioa gutxitan da lekuei buruzkoa; fikzioan istorioa da axola duena. Baina kokapenean arreta jartzen badugu, trama nagusiari ere adi egonez, ikus-entzunezko irudian gordetako jakintza filmiko batera sartzeko aukera izango dugu. Aztertu dezagun «Higiezinaren Fikzioa»ren lehenengo atalean filmatutako testuinguruaren inguruko jakintza objektibo hori (<https://vimeo.com/80078379>):



Hiri batzuk higiezinaren inguruko tramak sortzeko agertoki paradigmaticoak dira. New York, Londres edo Los Angeles etengabeko aldaketak jasaten dituzten agertokiak dira, filmak batzuetan aurrerapenak ezabatutako agertokiaren erregistro bilakatzen direlarik.

*Batteries not included* (1987) filmean plater hegalaria txiki batzuei esker demolizioari aurka egitea lortu zuen eraikinaren zer arrasto dago gaur? «Istorioa zabor artean dagoen eraikin bakarti batean gertatzen denez, inguruan eraikin erreak

zituena lursail mortu bat aurkitu behar genuen» zioen Ronald Schwary produktoreak. Azkenean, New Yorkeko Lower East Side auzoko 8. kaleko C eta D etorbideen artean zegoen eraikin erreala hautatu genuen. Egun eraikina ez da existitzen. Haren ordez Etxebizitza Bulegoaren azpiestazioa dago hemen, ingurune oso ezberdinean gainera. Lower East Side auzoa hiri-eraldaketa handien agertokia izan da.

*Batteries not included* pelikularen filmazioa baino urte gutxi batzuk lehenago, leku bera higiezinaren merkatuaren eta industria kulturalaren arteko aliantza indartsuaren testigu izan zen. Lower East Side-ren gentrifikazio-prozesua hasia zen, bertako azpikulturaren merkantilizazio arinak lagundua eta indartua izan zena. *Downtown 81* (1981) kasu berezia da: bizitza errealeko protagonistek antzeztutako fikzioa da hau. *Basquiat* (1996) biopic-a baino interesgarriagoa den fikzio honetan, erabilia izaten ari den den artistaren kontzientzia atzematen da. Hala ere, horren *marketinianoak* ez ziren artista garaikideen arabera ez da nahikoa sumatzen: Lower East Side-n garatzen ari zen arteak kontrakulturala ematen zuen arren, bere buruaren gaineko hausnarketa politikoaren gabeziak kultura zapaltzailea birsortzera kondenatu zuen.

New Yorken jarraituz, etorkizunaren iragarle diruditen zenbait fikziozko pelikula ere aurki ditzakegu. *Do the right thing* (1989) filmean trama nagusia Bedford-Stuyvesant-en garatzen da, Bed-Stuy izenez ere ezaguna den eta hainbat hamarkadatan zehar Brooklyn-eko nukleo kultural afro-amerikarra izan zen auzoan. Auzoko mutil talde batek heldu berri den klase ertaineko auzotar bati aurre egiten dio, lurraldea markatzeko nolabaiteko jarrerarekin. Mutil zuri berriaren presentzia adierazgarria eta mehatxatzailea da. Fikziotik at, *Times* aldizkarian Bedford-Stuyvesant Brooklyn-eko inbertsiogune berria zela adierazi ondoren, auzoa kasu bilakatu da eta 80ko hamarkadan bertan bizi ziren auzokideek egun auzoz aldatu behar izan dute.



1. irudia ~ Hurrengo filmen fotogramak: "El inquilino" (1957, José Antonio Nieves Conde), "Who framed Roger Rabbit" (1988, Robert Zemeckis), "Life stinks" (1991, Mel Brooks), "La Estrategia del caracol" (1993, Sergio Cabrera).  
Egilea ~ Left Hand Rotation.



2. irudia ~ Hurrengo filmen fotogramak: "V" (1983), "The A Team" (1984), "The Goonies" (1985, Richard Donner), "District 9" (2009, Neill Blomkamp).  
Egilea ~ Left Hand Rotation.

East End of London. Burmuinik gabeko kontsumitzaileak irudikatzen diren pelikula horietariko da *Cockneys vs Zombies* (2012), zeinak berezitasun originaltza duen zombiek batez ere hiri-espazioak kontsumitza. Planteamendu hori ez dago East End-eko errealtate espazialek horren urrun, Olympic Park eraikitzeak eraldaketa sakona eragin baitu inguruan. Izan ere, alde hori berdiseinatzen ari den eta bertako bizikide tradizionalak (cockney-ak) beren auzoetatik kanporatzen ari den gentrifikazio-prozesua bultzatu du.

Azken hamarkadetan higiezinaren sustatzaileek askotan erabili izan dute East End pobrezia eta miseriarekin alderatzen zuen irudia hiri-garapenerako proiektu bortitzak praktikan jartzeko helburuaz, enpresa pribatuen bitartez garatuak izan direnak, 1980ko hamarkadako Canary Wharf kasu. Egun, fikzioak justizia egiten du *Tower Block* (2012) bezalako filmetan.

Londresen, gentrifikazio hitzaren inspirazio izan zen hiriak, ezin du ahaztu hiri-gatazkak zenbateraino dauden klase-gatazkaz osatuta. *High Hopes* (1988) pelikula tirabira horietan barneratzen da. King's Cross auzoaren 80ko hamarkadaren bukaerako egoerak komedia sozial horren fikzioa elikatzen beste eman bazuen ere, gaur egun, bi mila milioi librariko inbertsioa egin ondoren, fikzioak gainezka egin du, katalogatutako eraikinez eta abandonatutako lursail hektarea ugari osatutako alde hori etorkizuneko klase sortzailearentzako epizentro bilakatuz.

Klase baxuen hirirako eskubidea hainbat fikzio-pelikularen inspirazio-iturri izan da. *Boyz n the Hood* (1991), 80ko hamarkadaren bukaerako Los Angelesen, South Central-eko komunitate beltz marjinatua sufritzen ari zen problematika sorta zabala jasotzen saiatzen da bi orduko metrajea. Horien artean dago gentrifikazioa, esfera errealeko Inglewood-era ere heldu dena. Egun, klase ertaineko artista zuriak desiratutako gunea da, gutxi-gutxika zona horretan kokatzen ari direnak.

Zenbait fikzioek erdiguneko auzo herrikoiek gaizkileengan piztutako interesa dute atze-oihal bezala. Horientzat, «zoru errentagarria» baino ez da lurraldea, eta bertako bizikideak inbertsioetarako traba gogaikarria baino ez dira. *Life Stinks* (1991) filmak zera iradokitzen du: higiezinaren merkatua kontrolatzen dutenek espekulazio-joerak gutxituko lituzketela denbora-tarte luze batean behartsuenen errealtatearen eraginpean egongo balira. Agian hori Los Angeles hirian baino ez da posible, Hollywood-en sorlekuan, fikzioen fabrika erraldoian, bestalde, higiezinaren enpresa sustatzaile bati izena zor dion horretan.

Fikziozko kokalekua duten pelikulek ere ezin diote errealtateari erreferentzia egiteari utzi. Hartu dezagun Toontown adibidez, *Who framed Roger Rabbit* (1988) filmean mehatxatua den hiria. Trafikoaren dilema auzoak suntsitzen ditu hemen, alegiazko auzoak kasu honetan. Baina halako soluzioak fikzio izatetik urrun daude. Agian, *Who framed Roger Rabbit*-en gidoiariek Jane Jacobs-en Lower Manhattan Expressway proiektu polemikoaren aurkako borrokan aurkitu zuten inspirazioa. Zortzi erreiko

autopista altu horrek Greenwich Village txikitu nahi zuen 60ko hamarkadaren bukaeran. Edo *Tekkon Kinkreet* (2006) animazio-filmeko Treasureville, Tokioko Kichijoji eta Gotanda-ko kaleetan oinarritutako fikziozko auzoa. Kichijoji ezaguna da auzo bohemioa izateagatik, kitch-a, kulturala, Tokioko modako zentroan. Gotanda barrutia izaera industrial izatetik etxebizitza eta negoziogune bilakatzen igaro zen, enpresa multinazionalen egoitza bilakatuz eta Kabukicho-rekin «auzo gorria» izateko lehiatuz. Fikzioan bi eraldaketak dira zaharritutako Treasureville auzoaren mehatxu.

Hala ere, ez dira megapoli handiak higiezinaren inguruko suspensezko tramen inspirazio-iturri bakarrak. *Homebodies* (1974) hiri-eraberritze proiektu bat gauzatu ahal izateko beren etxeetatik kanporatuak diren pertsona nagusien inguruko pelikula da, baita aurrerapenari aurre egiteko haien alferrikako esfortzuen ingurukoa ere. Kanpoaldeko eszena gehienak Queengate-en filmatu ziren, Cincinnati zentroko antzinako alde industrialean, eta egun hiria berritzeko programaren pean garatzen ari dena. *Le mani sulla città* (1963) filmak Italian 60ko hamarkadan izandako korrupzio politikoa eta higiezinaren espekulazioa salatzen ditu fikzioaren bitartez, gertakariaren dekoratutzat Napoli hartuz. Eta esan beharra dago Bogotá hiriararen zentroan fikzionatu zirela hirietako bizilagunek gauzatutako estrategia original eta inspiratzaileen artekoak higiezinaren injustiziaren aurka, *La estrategia del Caracol* (1993) pelikulan ageri den legez. Higiezinaren jazarpenaren metafora da hori, sistema sozialean estratifikazio handia duen hiriararen errealtatean oinarrituta.

Espainiako zinea ere bada auzo marjinalen eta hiri-ereldaketen ikerketarako iturri dokumentala. Adibidez, *Chuecatown* (2007) filmean ageri den higiezinaren inguruko krimena dugu, Madrilgo gentrifikazio-prozesu nabarienetarikoaren inguruan ironia egiten duen trama proposatzen diguna. Chueca, 70eko hamarkadako auzo degradatua, gaur egun birgaitutako etxebizitza garestiak eta hirugarren sektore eskusiboa dituen gunea da. Egoera batetik bestera igarotzeko egindako bidea suspensezko istorioa da

Soluzioa amets batean heltzea, *El inquilino* (1957) pelikulako tramaren ebazpenean gertatzen den bezala, fikzioan soilik desiragarria den aukera da, errealtateak borrokatu egin behar duena.

Fikzioen collage honetan, non hiria eta bertako bizilagunak protagonista diren, garai konkretu bateko eredu sozioekonomikoari lotutako hiri-gatazken erregistroa ezkututzen da. Modu berean, horien bukaerak soluzio sorta zabala proiektatzen digute, irudimenak soilik muga dezakeena. Agian noizbait, gai izango gara fikziozko zinema ezagutza dokumentalaren jatorri bezala aintzat hartzeko, hainbeste iradokitzeko gai den narrazio-ordena horri oihartzun eta esanahi berriak emanez.

*Higiezinaren Fikzioa ikus-entzunezko ikerketa proiektua da, irabazi asmorik ez duena eta helburu artistiko, didaktiko eta/edo kritikoak dituena. [www.lefthandrotation.com](http://www.lefthandrotation.com) / [www.museodelosdesplazados.com](http://www.museodelosdesplazados.com)*

...

Erredakzioan itzulia.